


2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.
Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

Testua. TEXTO.



Ehiza, hiztegiak dioenez, animaliak atzematea edo hiltzea helburu duen jarduera da. Ehiztariak, hizkuntza gehiago zainduz, ehiza kirol noblea dela diote, eta Naturaren miresle, maitale eta aldeko aitortzen dute euren burua. Gauzak horrela, galdera bat luza nahi nieke ehiza zale guztiei: Eman diezaiokegu "kirol" izena izakien sufrimendua eta heriotza dakarren jarduera bati?

Natura eta beraren gozamena gizaki guztiena da, eta ez soilik batzuen. Animaliak hiltzean, besteoi animalia horiek bizirik ikusteko, beren agerreraz gozatzeko, eta, ikusi ez arren, basoan badirela pentsatzen dugun pozerako eskubidea zapaltzen digute ehiztariak. Gainera, ehiztariak naturaren aurrean azaltzen duten jabetza lapurretazkoa da, animalia hil eta beraientzat gordetzen baitute.

Egia da, lizentzia bat ordainduz, legeak ehizarako eskubidea ematen diela ehiztariari. Baina astakeria deritzat arrazoi hori euren alde erabiltzeari. Ez dezogun ahatz legeak dioten guztia ez dela beti zilegi izaten. Erromatarren garaian, adibidez, gladiadoreen arteko borroka hilgarriak legezkoak ziren, duela gutxi arte esklabismoa ere leku askotan legezkoa zen bezalaxe, baina hala ere jende askok zekien ez zegoela horretarako eskubiderik.

Aspaldiko garaietan bizitzeko beharrak bultzatzen zuen gizakia ehiza egitera, horri esker jaten baitzuen. Gaur egungo ehiza, ordea, erabat bestelakoa da. Janaria lortzeko betekizun zahar hura jadanik ez dago. Animalien atzetik joan eta beraiek hiltzeko atsegin berezi —eta zergatik hitz egokiaz ez esan— sadikoak bultzatzen du soilik egungo ehiza.

Eta horren guztiaren aurrean, norberaren plazerra lortzeko beste izaki bizien sufrimendu eta heriotza dakarren "kirol" hori giza ikuspuntutik zilegi eta moral ote den galdetzeko ordua dugu guztiok, legezkoa, hau da, lege zaharkitu eta zentzugabe batzuen barrukoa bada ere.

KINTANA, Xabier, Habe, 1989 (Egokitua)

GAIA/ASIGNATURA	Laguntza/ PT
MAILA/CURSO	3

IKASTETXEA/CENTRO	Doneztebe
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	Orientazioa
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Maite Alsua
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	Xabier Kintana
IZENBURUA/TÍTULO	Ehiza
ARGITALETXEA/EDITORIAL	Habe
URTEA/AÑO	1989
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	
ISBN	
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	Texto impreso
FORMATOA/FORMATO	jarraia
MOTA/TIPO	argudioa
ERABILERA/USO	hezkontza
ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<p>TESTUA: “EHIZA”</p> <p>Estrategia metodologikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontzeptualak: “Ehiza” eta “kirola” kontzeptuak bereiztea. - Lexikoak: Ehiza eta naturaren artean dagoen harremana ezagutzea. - Historikoak: Historian zehar zergatik ehizatu izan duten izakiak ezagutzea. - Testualak: Argudio testuari buruzko jakintzak. <p>Irakurlearen estrategiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenik beharrezkoa da argudiozko testuei buruzko informazioa izatea tesiak, argudioak eta horrelako kontzeptuak ezagutzeko eta gero testua irakurtzerakoan bereizteko gai izatea.
	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa egiterakoan helburu hauek edukiko ditugu kontuan: Edukiaren ideia orokorraz jabetzea, ulermen globala izatea, hau da, beste bati kontatzeko gai izatea.
	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurri ondoren ikasleak jakin beharko luke idazleak zein iritzi duen ehizari buruz.

LA LECTURA	<ul style="list-style-type: none"> - Edukiaren sintesia galdetegiaren bidez: Zein den idazlearen iritzia, zein diren erabiltzen dituen argudioak, zein adibide jartzen duen hori adierazteko,... - Testuan ematen diren argudioak kontutan hartuta ikaslea bera ere bere iritzia emateko gai izatea: Ehiza kirola den ala ez, ehiztariek natura errespetatzen duten ala ez, idazleak ematen dituen argudioak baliagarriak diren,... Honetarako kontutan hartu beharko dugu ikasleak gai honi buruz irakurri duena edo dakiena. 	
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Zer da EHIZA hiztegiaren arabera?
	Erantzuna Respuesta	<i>Ehiza, animaliak atzematea edo hiltzea helburu duen jarduera da.</i>
	2.	Idazleak testuan aipatzen du ehiztariek euren alde erabili ohi duten argudio bat . Zein da argudio hori?
	Erantzuna Respuesta	<i>Ehiztariek kirol noblea dela ehiza diote eta beraiek saturaren maitale eta aldeko ikusten dute bere burua.</i>
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Zein da zure ustez testuaren gaia? Aukera ezazu hauetako bat: a) Ehiza eta kirola b) Ehiztarien jarrera c) Ehizaren legezkotasuna d) Ehiza kirola ote?
	Erantzuna Respuesta	<i>Ikasleak daukeratu beharko du, hau da, ehiza kirola ote?</i>
	2.	Gaiari buruzko bi ikuspuntu azaltzen dira testuan. Zein dira ikuspuntu horiek eta nork ematen ditu?
	Erantzuna Respuesta	<i>Azaltzen diren bi ikuspuntuak dira igorleak adierazten duena ehizaren aurkakoa eta bestaldetik dago ehiztarien ikuspuntua ehizaren aldekoa dena.</i>
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	Zer esan nahi du igorleak honako esaldi honekin “eman diezaiokegu “kirol” izena izakien sufrimendua dakarren jarduera bati?”

	Erantzuna Respuesta	<i>Igorleak esaldi hau erabiltzerakoan esan nahi du kirola hitzak suposatzen duela zerbait egitea baina disfrutatzeke inori kalterik egin gabe eta ehiza ezin dela kirola izan izakiren baten hilketara suposatzen duelako, hau da besteen kaltetako egiten den jarduera delako.</i>
	2.	Idazleak adierazten du ehiza justifikagarria izan daitekela egoera bakar batean. Egoera hau zein den azaldu
	Erantzuna Respuesta	<i>Idazleak ehizaren jarduera justifikatuko zukeen kasu bakarra izango zen bizitzarako beharrezkoa izanez gero eta horretarako esaten du 4. paragrafoan aspaldian ehizatzen zela janaria behar zutelako bizitzeko baina orain ez dagoela egoera hori.</i>
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN - CONTENIDO	1.	Ehiza gaiari buruzko iritzia berdina izando al da ingurune urbano batean eta landa ingurune batean? Zergatik?
	Erantzuna Respuesta	<i>Ikasleak bere iritzia eman behar du justifikatuz nolakoa den ingurune urbanoa eta rural aeta horren arabera egon daitezken desberdintasunak ehizari buruz iritzia ematerakoan ala ez.</i>
	2.	Ematen diren bi iritziren artean (igorlearena eta ehiztariena) zeinekin zaude zu ados? Testuan esandakoan oinarrituta arrazonatu zure erantzuna.
	Erantzuna Respuesta	<i>Ikasleak bai igorlearen eta baita ehiztariaren iritzia kontutan hartuta norekin dagoen ados idatzi beharko du eta bere erantzuna argudiatu beharko du.</i>
Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN - FORMA	1.	Zergatik “kirol” hitza komatxo artean agertzen du igorleak?
	Erantzuna Respuesta	<i>Idazleak baliabide hau erabiltzen du kirol hitzak duen esanahia ez datorrelako bat bere ustez, ehiza virola dela esatearekin eta komatxoak erabiliz lortzen du irakurlearen atentzioa hitz horretan egotea.</i>

	2.	Idazleak testuaren ondean marrazki bat jarri du. Iruditzen al zaizu zerbait azpimarratzeko egin duela edo polita geratzeko egin duela ? Arrazoitu zure erantzuna.
	Erantzuna Respuesta	<i>Ikasleak bere iritzia eman beharko du eta marrazkia aztertu beharko du, hau da, eskopeta goruntz begira dagoela tiroa botatzeko prest beste animalitxoren bat hiltzeko, ondoan txoriak daude hilik eta kartutxo pila bat ekintza horretan jarraitzeko.</i>
PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA - OHARRAKOBSERVACIONES		